

lanean gai biologikoen
eraginpean egoteagatiko
istripua/intzidentea

12

INFORMAZIO-GIDA



SARRERA

Arau hau, bereziki, bere lana osasun-munduan egiten duen eta pazienteen odolarekin edo bestelako jariakinekin zuzeneko edo zeharkako harremana duen **langile orori** zuzendua dago.

DEFINIZIOAK

Lanagatik eraginpean egotea: laneko garaian pazienteen odolarekin eta bestelako jariakin edo material organikoekin ezbeharrez kontaktuan egoteari esaten zaio.

Istripua: langileek beren lana egiterakoan odolarekin (edo arreta-neurri unibertsalak aplikatu behar zaizkien bestelako jariakinekin), dela larruazalean zeharreko inokulazioagatik edo zauri ireki batekin, larruazal erasanarekin edota mukosekin izandako kontakturen baten ondoriozkoa izan eta osasun-galera edo lesioak ekartzen dizkienekoa bezala definitzen da.

Intzidentea: pertsonen osasun-galerarik edo lesiorik eragin gabe, jabetzari, ekipamenduei, produktuei edo ingurumenari, etab. kalteak egin diezazkiokeen edozein gertaera ustekabeko eta nahi gabeko.

Jarduketa-plana: istripua/intzidentea gertatzen denean hartu beharreko arau orokorrak edo zehatzak.

HORRI DAGOZKION ARRISKU NAGUSIAK


BIOLOGIKOAK

- Lan egiterakoan erabiltzen diren agente, substantzia eta produktu arriskutsuak, edo horien ezaugarri arriskutsuak, ez ezagutzea.
- Identifikatu gabeko substantziak.
- Biltegiatze desegokiak, luzarokoak.
- Lan egiteko metodoak eta prozedurak ez ezagutzea.
- Laborategiko ekipamendua ez ezagutzea.
- Laborategiko material desegokia edo kalitate txarrekoa erabiltzea.
- Zipritzinak edo proiektzioak, hala nola isurketak, jarioak, etab.
- Material biologikoa daukaten ontziak haustea.
- Ekipamenduak modu desegokian erabiltzea.

SUTEA

- Emergentziako kasuan hartu beharreko neurriak ez ezagutzea.
- Laborategiko aparatu eta instalazio konplexuek gainbegirapenik gabe funtzionatzea.
- Ekipamenduen funtzionatzeko modua ez ezagutzea.
- Etengabe entxufatuta dauden ekipamenduak.

LANEKO OHITURA TXARRAK



PREBENTZIOA

NEURRI OROKORRAK

- **Ezagut itzazu lan egiteko metodoak eta prozedurak.**
- Pentsatu sor daitezkeen emergentzia-egoeretan, aldez aurretik jakiteko sor daitezkeen kasuetako bakoitzean **jarduteko metodoa** zein den.
- Prozesuari ekin aurretik, ekipamendua eta materialak bildu, garbitu eta deskontaminatzeko behar diren materialak eta metodoa eduki behar dituzu, arreta berezia jarritz hastubideak eta haizebideak ez kutsatzeko.
- Produktu kimiko arriskutsuak erabiltzen diren leku batean jarria, eztanda edo sutea sortuz gero, ekipamendu egokia duten pertsonak bakarrik egon behar dute bertan. Gainerakoek kanpora atera behar dute berehala.
- Sutean aurkako **alarmen eta ekipamendu automatikoen funtzionamendua** zein den jakin behar duzu.
- Istripuren bat gertatuz gero, jo ezazu Laneko Osasun Zerbitzura (POU).
- Erabili beti norbera babesteko ekipamendua: eskularruak, maskarak, begi-babesak eta mantalak. Norbera babesteko ekipamendua, erabili beharreko prozedurari dagokiona izango da.
- Lanean hasi aurretik, **babestu itzazu beti** eskuetako **larruazaleko zauriak eta lesioak eskularruekin** eta gorputzeko gainerakoak apositu iragazgaitzekin (tiritu modukoekin).
- **Txertoak behar bezala** hartuta eduki. Galdetu Laneko Osasun Zerbitzuan (POU).
- Arrisku bereziko operazioak egiten dituzunean, jakinarazi zure zuzeneko aginteari.

EGOERA JAKINETAN JARDUTEKO MODUA

- **Zauriak, ebakiak edo ziztadak.**
 - Erretiratu ziztada egin dizun gauza.
 - Odolarekin edo bestelako jariakinekin ustekabeen kontakturik izanez gero, kendu berehala eskularruak.
 - Garbitu zauria ur korrontearekin, igurtzikatu gabe, odolari askatasun osoz jariatzen utziz 2-3 minutu ur korrontearen azpian. Behar izanez gero, indar egin odola ateratzeko.
 - Desinfektatu zauria pobidona iododunarekin. Iodoari alergia dioten pertsonak clorhexidina erabil dezakete.
 - Estali zauria apositu iragazgaitz batekin.
 - Jakinarazi Laneko Osasun Zerbitzuari (POU).
- **Begi eta mukosetako zipriztinak**
 - Garbitu ur askorekin 15 – 20 minutuz.
 - Jo Laneko Osasun Zerbitzura (POU), Larrialdietara edo, kasua balitz, Oftalmologiako Zerbitzura ahalik eta lasterren.
- **Larruazaleko edo arropako zipriztinak.**

Zipriztinak agerian dagoen larruazalera erori badira:

 - Garbitu ur asko eta xaboiarekin.
 - Jo Laneko Osasun Zerbitzura (POU) edo Larrialdietara.

Zipriztinak arropan erori badira:

 - Aldatu arropa.
- **Zipriztinak edo odol- edo jariakin-isurketak gainazaletara edo gauzen gainera.**
 - Jantzi eskularru sendoak.
 - Isuri %10ean diluitutako lixiba (hamarretik bat etxeko lixiba eta hamarretik 9 ura) kutsatutako gainazalera.
 - Garbitu eremu hori erabili eta botatzeko toallekin.
 - Erantzi eskularruak, eta garbitu eskuak.

● **Haztegi-ontziak haustea edo horietatik isurtzea**

- Estali hautsitako ontziak edo isuritako haztegiak desinfektatzailez bustitako trapu batekin, lixiba, iodoformo, % 70eko alkohol etiliko edo detergente desinfektatzaileekin.
- Utzi lan egiten gutxienez 10 minutuz.
- Jaso puskatutako zatiak eta trapua pala batekin.
- Isurketaren eremua desinfektatzaile batekin garbitu.
- Hautsitako materiala hondakin biologikoentzako ontzi batean sartu, eta egokiro kanporatu.
- Garbiketako tresna berrerabilgarriak ontzi batean ipini, egokiro esterilizatu edo desinfektatzeko.
- Ebaki eta ziztaden aurka sendoak diren eskularruak erabili beti; hobe erabili eta botatzekoak baldin badira.
- Dokumenturen bat kutsatua gertatuko balitz, egin horren kopia, eta jatorrizkoa kanporatu hondakin biologiko bat balitz bezala.

● **Zentrifugadoreetan arriskutsua izan litekeen edukia duten hodiak haustea**

- Eten zentrifugazioa, eta ez ireki makina harik eta 30 minutu igaro arte.
- Haustura makina geratzen denean antzematen baldin bada, itxi eta itxaron 30 minutu.
- Abisatu zerbitzuburuari.
- Ireki segurtasun biologikoko kabinetan material arriskutsuarentzako segurtasun-saskiak, agente biologikoaren arriskuari dagokion motakoak.
- Materiala biltzeko, eskularru sendoak erabili, ahal bada erabili eta botatzeko plastikozko beste eskularru batzuekin estalita.
- Beira-puskak biltzeko, berriz, matxardak edo kotoizko torundak erabili, matxardekin manipulatatutakoak.
- Hautsitako hodiak, beira-puskak, saskiak eta errotorea korrosiboa ez den eta mikroorganismo inplikatuaren aurka eraginkortasun ezaguna duen desinfektatzaile batean murgildu 24 orduz. Gero, ipini saskiari tapoia, behartu gabe, eta esterilizatu autoklabean edo korrosiboa ez den desinfektatzaile egoki batean.
- Osorik dauden hodiak, beren tapoiekin, sar daitezke beste ontzi desinfektatzaile batean, eta horien edukia berreskura daiteke 60 minutura.
- Gomendatutako denbora igaro ondoren, hodi hautsiak eta beira-zatiak hondakinak balira bezala kanporatu. Desinfektatzailea kendu ostean, erabili berriro errotorea.
- Garbitu zentrifugadorearen kubeta, diluzioari dagokion desinfektatzaile berean bustitako kotoi batekin. Eta errepikatu hori bera biharamunean. Ondoren, garbitu urarekin, eta lehortu.
- Erabilitako kotoiak, hondakin biologikoak balira bezala tratatu.
- Ez erabili hipoklorito-disoluziorik (lixiba), eragin korrosiboa duelako metaletan.

● **Arriskutsua izan litekeen aerosol bat segurtasun-ganberatik kanpora isurtzea**

- Ebakuatu berehala erasandako zona.
- Abisatu berehala zerbitzuko arduradunari.
- Ez utzi inori lokalean sartzen, egokiro seinalatuz, gutxienez ordubetean, harik eta aerosola pausatzen den arte.
- Aqierazitako denbora (gutxienez, ordubete) igarotzen denean, deskontaminatu lokala.
- Joan Laneko Osasun Zerbitzura (POU).

● **Sutea**

- Jakinaren gainean izan beti non dauden zure lanpostutik edo zonatik hurbilen dauden sutetik babesteko eta berori itzaltzeko baliabideak.
- Ez ipini gauzarik sutetik babesteko eta berori itzaltzeko baliabideen inguruan, horiek hartzeko bidea oztopatzeko moduan.
- Sutetik babesteko eta berori itzaltzeko baliabideetan anomaliaren bat topatzen baldin baduzu, emaitza horren berri zure gaineko arduradunari.
- Ez erabili iraunkorki luzagarririk eta multikonektorerik ("lapurrik").
- Lanaldia bukatzean, deskonektatu beti ekipamenduak.
- Ahal bada, ez erabili Bunsen metxerorik edo antzekorik, fluxu laminarraren desbiderapenik edo zurrumbiliorik eragin dezake-eta.